

Lauaxeta eta Aresti Santu Kulturalak

2025an oroipen-urtea izango dugu Euskal Literaturaren alorrean. Esteban Urkiaga Lauaxetaren jaiotzaren 120. urteurrena ospatuko da. Arestiren heriotzaren 50.a oroituko dugu

JON KORTAZAR

Oroipenak, oroitzapenak, oroitzak botereak dituen tresnak dira idazleak gurtzeko, gizarteratzeko eta neurri handi batean, santifikatuz, nazioaren identitatearen agerbide proposatzeko eta santu kultural gisa proposatzeko. Aurtengo ekitaldiekin oroitzatzea, eta nazio identitatea indartzea izango dugu irakurleok idazleen obra ezagutzeko helburu nagusia. Azken batean horixe da helburua: nahiz eta poeta biren lana irakurri ez, haien ezagutza zabaltzea, eta barneratzea hein batean.

Arestiri egindako omenaldia. 'Kaleartean'

Egile biren itzala desberdina da. Euskaraz irakurtzen ez dutenen (eta irakurtzen dutenen) artean esango nuke Arestik duela gaur egun ezagutza handiagoa. Eta ziurrenik berak izango du omenaldi zabalagoa, artean zenbaki kontuak ere laguntzen duelako: 50 zenbakia, 120 baino biribilagoa da. Baina koska ez dago hor: Nork zer duen ere garrantzizkoa da.

Gaur egun isilik egin da Arestiri egin zaion omenaldi bakarra. Esperantza kaleko frontoiaren horman bazegoen Arestiren 'Kaleartean' deituriko poema ezagun hura plaka batean jarrita: «Askaotik Sendejara/ Bilbaon/ Esperantza/ oso mehar, ilun eta laburra/ da». Toki hori berri-zeko lanak hasi zirenean ken-

du egin zuten. Eta aurtengo otsailaren 17an berriz jarri dute plaka berri bat toki berean. Juan Mari Aburto, Bilboko alkatea, eta Meli Esteban, poetaren alarguna batera izan ziren ekitaldian. Juan Mari Aburtok orduan esandako hitzak kontuan hartzen baditugu, ikusiko dugu goian aipaturiko helburuak adierazi zituela: nahi du poeta ez ahaztea, baizik eta gogoan hartzea, eta gainera, bide-erakusle eta ere-

Egile biren itzala
desberdina da



Gabriel Aresti

Lauaxetaren ibilbideak

Urtearen lehen lau hilabete hauetan Lauaxetak aurrea hartu duela sumatu dezakegu. Eta ulergarria da, abuztuan jaio baitzen, eta ez dirudi, gaur egunerako, oporretan gaudenerako, data aproposa denik omenaldietarako. Horregatik poetaren sorlekua izan zen Laukiz herriak, edo udalak, hobeki esan, herriko 'Lauaxeta' plazan jartzeko proiektu eskulturikoak egitea proposatu dio Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederretako Eskultura, Arkitektura eta Hiri-ko paisaia sailari. Ikasleen lanen proiektuak aurkeztu ziren, 6 gutzira, eta Ane de la Sotak, Noelia Lópezek eta Wen San Lorenzok

egindakoak irabazi du lehiaketa. 'Harroa eta Sendoa' deitu dute bere lana, eta nire harridura sotilarentzako, eskultura ez da figuratiboa. Egileek adierazi dute poetaren lanean oinarritu dutela, eta berea horren interpretazioa dela: «Eskultura abstraktu hau burdin batez lotutako hormigoizko bi elementu geometriko berdinek osatzen dute... biak artistaren poemetan agertzen diren elementu horiei guztiei erreferentzia eginez. Piezaren hormetan zehar, artistak idatzitako testu bat agertzen da grabatua» Hutsune bat ere badago, eta hutsarekin poetak bizi izandako garaia sinbolo bihurtu nahi dute.

Monumentuak

Ikusi dezakegu bada, idazleak liburuetatik kalera eramateko ahalegin hauetan monumentu bi aukeratu direla oroigarri nagusi, solemne, iraunkor bi. Indarra, sendotasuna, sublimea, oroigarria harri bihurturik, poeta biren izenak ez ahazteko moduko tresna bi.

Beharrezko komikia

AIORA SAMPEDRO

Azaroaren 11 data seinalatua izan ohi da Lehen Mundu Gerra zuzenean jasan izan zen lurretan, izan ere, gudaren armistizioaren eguna gogoratzen da. Ipar Euskal Herrian bizipen latzak utzi zituen gerlak euskal herritarrentzat eta sinboloek Estatu frantsesaren frontean hildakoen balentriak eta patriotismoa oroi-tu ohi dituzte bertan, armadako agintariak gudari haieki-ko egindako gehiegikeriak isiltzen dituzten bitartean. Urtero bezala, 2014ko azaroan, Urruñan eguna oroitu dute, baina kontrako azalak dioen moduan, «Gauetan baina, iluntasunak kaleak estali ditue-nean, oroitarriko pertsonaiek bizia hartu eta gertatutakoaz mintzatzen hasiko dira». Estetikara hurbiltzen da, non ma-muak berpizten diren isildu-tako gertaera aktualak kon-tatzeko. Diktadurei buruzko kontakizunen kasua oso ai-patua izan zen, latitude ekua-

torialetan, baita frankismoari buruzko li-teraturaren tradizio hispanikoan ere. Kasu honetan, monumentuak aipatzen dituz-te, Berri Txarrak taldearen «Pintadek esan ohi dute paretek isiltzen dutena» abes-tiaren hitzak gogora ekarriz. Oraingoan, igeltsu antropomorfoak hitz egiten du kontatzeko.

Geuretik Sortuak Udalbiltzaren baita-ko zenbait udaletan euskal sortzaileek arte-egonaldiak egiteko egitasmoaren baitan, Aritz Ibarrak komikigintzarako egonaldia egin zuen, Urruñan, besteak beste. Eta une hari buruzko kontakizuna plazaratu zuen. 2023aren amaieran ar-gitaratu bazen ere, orain, hi-tzatzeak lagunduta eta Eneko Bidegain eta Ibai Telletxea-ren azalpenak lagunduta eman zaigu. Lan beharrezkoa beraz, ahanzturaren aurka, agian iparraldean bertan be-zain beharrezkoa dena he-goalderako. Hegoaldean, gehiegitan pentsamendu inperialistak eramanda, euskaldunen artean gerra ho-rrek sortu zuen triskantza ahaztu egiten da. Eta Iparral-dean, komikiak dioen beza-la, nazionalismo frantsesak gero eta gehiago beregana-tzen duelako gertatutakoari buruzko kontakizuna.

ALDAXKA
POZOITUAK
ARITZ IBARRA
Txalaparta
48 orr.
15 euro



Pedalei itzulika

JON MARTIN-ETXEESTE

Izan dira liburu gutxi batzuk irakurri or-duko itzultzailearen izena kuxkuxeatze-ra eraman nautenak; horietako bat, hau-xe. Fernando Reyk, itzulpen lanean aska-tasun zantzu bat sumatu duen aldiro, bere aletxoak jarri dio; animalien izenetan, adi-bidez: Hegaztiari Felix izena jarri dio (Fe-nix greko-erromatarrarekin lotuta), Goen-kale ikusi genuen euskaldu-nentzat karga bat duten ize-nak (Gregorio aitona), edo hitz-joko burutsuak (Etxabe andrea da behia) baliatu ditu. Idatzizko istorioak ez du apar-teko misteriorik. Izatez, libu-ruaren izenburuak iragartzen du. Ipuinen ohiko egiturai erreparatuz gero, sarrera luze gozagarria du, korapilo labu-rra eta amaiera are laburra-go (ezusteko txiki eta guzti). Azken batean, komunitatea-ren potentzialaz dihardu. Nor-banako zaurgarri batek duen desioa betetzeko inguruan egotea komeni den babes sa-rea azpimarratzeko balio du

liburuak, baina batez ere irribarre txi-kiak eragiteko sortutako liburua da.

Albumetan testua bezain garrantzi-tsua da ilustrazioa. Alegia honetako ani-malien aurpegiak adierazkorrak dira era-bat; haien aldartea eta nortasun-ezauga-riak lehen bistadizoan bereganatuko ditu irakurleak. Animaliak antropomorfiza-tuak daude (ofizio, afizio eta janzkera markatuak dituzte), eta modu horretan

espezie bakoitzaren ezauga-rra behinenak (usoa mezula-ria da, behia txekorraren zaintzailea...) txirikordatzen ditu. Orrialde bakoitzean gur-pil gainean dabilen animalia bat da protagonista, baina bi-garren planoan badira ani-malia gehiago, beti ere, umo-rez betetako detaileren bat eransteke prest. Tobias Giaco-mazziren ilustrazio lana ar-telana iruditzen zait. Izatez, 2024ko Album ilustratuen Compostela sarian finalista izan zen bere lana. Bim, Bam, Bum liburuak (euskaraz, Baga, Biga, Higa) eskurat-u zuen lehen saria.

GURPILT XORIK
GABE IBILI
NAHI DUT
TOBIAS
GIACOMAZZI
Itz: Fernando Rey
Pamiela
32 orr., 16 euro



SALDUENAK

FIKZIOA

- 1 **Pleibak** Miren Amuriza. Susa.
- 2 **Zoo** Goiatz Labandibar. Elkar.
- 3 **Hetero**. Uxue Alberdi. Susa.
- 4 **Paziente isila** Alex Michaelides. Erein.

EZ FIKZIOA

- 1 **Txillardegi hizkuntzalari** Markos Zapiain. Elkar.
- 2 **Idazketa labana bat da** Annie Ernaux. Katakarak.
- 3 **Josefa, neskame** Alaitz Melgar Aguirre. Elkar.
- 4 **Nikole bijotzekua** Edorta Jimenez. Elkar.